

JOXEMARI ARANALDE, KRISTAU IZATEAZ HARRO

Jexuxmari Mujika



1. Errenteriako Madalenetako errebista hau urtero jantzi da azken boladan Arandalderen hitzekin. Aurten ez du auke-ra hori izango, zoritxarrez. Baina, Joxan Arbelaizek Iraila ezkerro bazekienez hori, Joxemari leku eman nahi izan dio aurten ere OARSOⁿ eta niregana jo du. Nireak ez du harenak bezala jantziko. Idazkerari dagokionean, noski, ez. Gaiari dagokionean baietz uste dut, hala ere. Joxemari badu horretarako merezimendua, eta berak kristau sinismenarekiko zuen jarrerak ere bai.. Kuriositate bezala esan behar dut, gainera, OARSO^rako idatzi zuen “**Nere aitasantua**” artikulua izan zela Arandalderen euskara ederrak gure letrei eman zien azken emaitza. Eskuz eginiko kartaren bat izango zuen geroztik idatzitako gauza bakarra.

2. Gure Joxemari hil zenean gauza dezente idatzi eta esan ziren berari buruz. Egoki esanak, nire usterako, gehien gehienak edo guzti guztiak. Pello Esnali eta Joxemari Iriondori, biei, irakurri nien Joxemaritaz hitz egiterakoan, beste bere adierazgarri askoren artean, *“harro sentitzen zela oso apaiz izateaz”*. Ez zeukala ezkutatzeko, alegia. Konforme nago ni ere, baina –eta orain esango dudan hau argitzera zuzendu nahi nuke nire artikulutxoa- nire iritzian, Joxemari apaiz izateaz baino askoz harroago kristau izateaz egon zen beti. Bere harrotasun eta pozaren oinarria kristau izatean oinarritzen zen. Hori zuen bere eguneroko bizitzako altxor maitagarria, apaiz izatearena baino gehiago. Azkeneko hau kristau izateko modu bat gehiago –berari suertatu eta berak aukeratu zuena, hori bai- besterik ez zen izan. Hau zergatik esaten dudan adierazten saiatuko naiz, eta horrek baduela uste dut gainera bere garrantzia, bai Gazteluko idazlea ulertzeko, eta baita berak hain maitea zuen kristautasuna ulertzeko ere.

3. Gizon berezia zen Joxemari. Bere zorionerako, eta ingurukoenerako. Baietz uste dut. Hogeitaka gutxi urteko gazte nintzenean –ordurako egiazko lagun sentitzen nuen- hizpide gertatu zen behin mahai baten inguruan euskal kultura gora et behera ari ginelarik, eta apaizgoan kide zuen batek honela definitu zuen gure gizona: *“entre místico y vividor”*. Niri hitz haiek alabantzarako esanak izan zirenik ez zitzaidan iruditu orduan. Mingarri samar gertatu zitzaizkidala ere gogoan dut garbi. Oso definizio txarra zenik ez dut uste izan geroztik, hala ere, eta gaur ere ezetz pentsatzen dut.

Joxemari mistiko eta poetatik bazuela zerbaitek –artista antzekoek ohi duten kutsu berezi hori- inork ez zion zalantzan jarri gure *“definidore”* agurgarriari. Hor ez zegoen arazorik. Beste hitza zen hor madarikatu ikuttua zeramana: *bibidorea*, alegia. Nor eta apaiz bat, nor eta kristau bat, hizpide eta eredu izateko adina kategori aitortzen zitzaion gizon hura. Izan ere, *“militia est vita hominis super terram”*. Bizitza soldaduska da, aixkiria!. Bizitza gogorra da eta zerua irabazi egin behar da. Plazerak ahuldu egiten du gizakia, Jainkoagandik urrundu, bekatu bidean ezarri. Asteari borondatezko bigarren ostiral bat edo gehiago ezartzen dizkionak ezagutzen ditu ondoen –edo bakarrik- zerurako bidezidorrak.

Joxemari, baina, mistiko egiazkoegia zen tranpa horretan erortzeko. Kristau izatea ez zela erraza bazekien Joxemari, bizitza ez dela bazekien bezala, bihotzik duenak sufrimendua oso hurbil izaten baitu, berea edo besterena; baina kristautasuna bizitza apropos zailtzeko egina ez

zitekeela izan ere bazekien. Oso garbi zekien hori. Bizitza leuntzea, edertzea, gozatzea dela erlijioaren egitekoa. Bizitza elkarri edertzea eta elkarrekin edertzea.

4. Bihotz handiko gizona zen Joxemari. Besteen pozarekin pozten ikasitakoa. Besteengan zeuden gauza onak –bizi poza, giza balioak- maitatzen eta deskubritzen saiatzen zena. Saiakera nagusi horretan kristau erlijioak asko laguntzen ziola irmoki uste zuen. Horregatik zen kristau. Gizon hobea izaten laguntzen ziolako. Bizitza, bere poz eta sufrimenduekin, hobeto, era gizakoiagoan, eramaten laguntzen ziolako.

Heriotzarekin guztia bukatzen dela norbaitek demostratuko balio ere berdin-berdin izango omen zela kristau, esan zidan behin. Hain iruditzen zitzaion ederra ebanjelioetako Jesusen mezua! Neuk irakurri nion bulegoan, frentez frentez egoten ginen eta, Umberto Eco-k Martini kardinalarekin elkarrizketan dioen hau:

“Si yo fuera un viajero proveniente de lejanas galaxias y me topara con una especie que ha sido capaz de proponerse tal modelo (Kristorena, alegia), admiraría subyugado tamaño energía teogónica y consideraría a esta especie miserable e infame, que tantos horrores ha cometido, redimida sólo por el hecho de haber sido capaz de desear y creer que todo eso fuera la Verdad. ... Admita que aunque Cristo no fuera más que el sujeto de una gran leyenda, el hecho de que esta leyenda haya podido ser imaginada y querida por estos bípedos sin plumas que sólo saben que nada saben, sería tan milagroso (milagrosamente misterioso) como el hecho de que el hijo de un Dios real fuera verdaderamente encarnado. Este misterio natural y terreno no cesaría de turbar y hacer mejor el corazón de quien no cree.” (Cinco escritos morales, 112)

Bigarren aldiz irakurrarazi zidan, eta bukatzean hauxe esan zuen, hitzen bat gora behera: *“Arrazoi dik. Edonor ez gaituk gauza hori hain ederki adierazteko, baina holako zerbait pentsatu gabe ez zegok kristau izaterik. Gaurko egunean ez behintzat. Hobe, gainera, ez likek mereziko eta. Izan ere zerbaitetan sinistek ingurukoentzat hobea izatera eramaten ez bahau...”*

Uste oso honexek alaitu eta indartu zuen Joxemariaren bizitza. Horrek mantendu zuen sendo kristau sinismenean, nahiz eta ondo zekien zein irakasgai ustekabeko, eder eta zail diren eta izango diren beti, *“horko txikienari egiten diozuna niri egiten didazu”, “daukazuna behartsuen artean banatu, eta etorri nirekin”, edo “zorionekoak erasotuak...”* bezalakoak.

5. Babestu ere, nik uste, ikuspegi berak egin zuen –eta hau azpimarratu nahi dut- erlijioek eta elizek -indartsuegi agertu nahiez lehen edo ahultzearen beldurrak jota daudelako gaur-, oso bereak dituzten bi arrisku itzaletatik: **autoritarismotik eta fundamentalismotik**. Batak bezala besteak aurreko puntuan esandakoa zaildu besterik ez dutela egiten gauza garbi samarra da. Joxemari bihozbera zen oso, eta debila, gizaki guztiok bezala, baina bere fedean indartsu sentitzen zen eta pozik. Fedean indartsu, denok Aita bera eta bakarra daukagula esaten zioen fede horretan indartsu. Gertatuak gertatu, gizaki guztion eta edozein gizakiren balio sakratua aitortzera bultzatzen zuen fedean indartsu.

Ikuspegi horrek salbatu zuen, nik uste, **autoritarismotik**, bera apaiztu zenean -1958an- oraindik hain ohizkoa zen autoritarismo hartatik, guztia elizaren esanera zuzendu behar ohizko, gogor eta sarritan gupidagabe hartatik.

Konbikzio sakonetako gizona zen gure gazteluarra, eta egosgogorkeriarako joera ere izan zezakeena –bazue-na- zenbait gauzetaz aritzean, baina inoiz ez fede kontuak tartean zirenean, inoiz ez erlijioaren izenean ari zenean. Joxemari bazekien ondo honen egitekoa bizitza eskertzea, bihotza gozatzea, eta jendea elkarrengana hurbiltzea zela. Hor zegoela kristau sinismenaren handitasun eta zailtasun zorionekoa ere. Ez beste ezertan.

Fundamentalismotik ere salbatu zuen. Aranaldek ez zion beldurrik sekularizazioari. Ez zion beldurrik, eta ez, honek





zituen ondorioetaz konturatzen ez zelako. Apaiza *don eta norbait zenetik ia inor ez izatera* pasa zene-ko urtetan tokatu zitzaion apaiz izatea, eta horrek ez zuen kikildu. Lotsarik gabe agertu zen beti zen bezalako. Elizak husten ikusi zituen, euskal kulturaren sekularizatzeko bide azkar eta zalapartatsua ere bai, gaztetxoaren bizitzarekiko eta erlijioarekiko jarrera berriak –irakasle ofizioa tarteko- oso hurbiletik ezagutu zituen. Eta sufritu ere egin zuen prozesu horretan, baina ez, nagusiki, elizatik aldentutakoengan ezer onik gehiago ikusi ezin zuelako, edo hauek demonizatzen zituelako; Eliza –eliztarrak, apaizak, bera barne- Jesusen mezua egoki zabaltzeko izpirituarekin ikusten ez zituelako, batez ere.

Joxemari ondo ezagutzen zuen “*ez dut Israelen horrenbeste fede aurkitu*” dioen pasarte hura. Jainkoaren argia ez dela toki ofizialetan bakarrik pizten, alegia. F. Nietzsche baino arerio gogorrago gutxi izan du, pentsaera mailan, kristautasunak. Berak, hala ere, idazle maitatua zuen oso. Egiazkoa aurkitzen zuen, eta behin baino gehiagotan entzun izan nion gutxi bezala ulertu zuela hark Jesusen adierazi nahi izan zuena, eta bera –Nietzsche, alegia- uste zuen baino hurbilago zegoela bere arerioarengandik. Eta hori argitzeko esplikazioak luze eman izan zizkidan. Egia esateko, ez nizkion guztiz inoiz ulertu, baina entzuten nion bakoitzean poztu egiten ninduen haren jarrerak.

6. Sekularizazioari ez zion beldurrik izan, eta sexuari ere ez. Gure eliza ama santak seigarrarena manamendu inportanteen bihurtzeko izan zuen joera ez zuen Joxemari apaizak indartu. Eskertzeko meritua da hori. Handia meritua, garai haietan. Eta hori zelibe-zelibe zelarik Gazteluko gizaseme eder hura. Bion lagun bizkor batek –zendua hura ere- Joxemari eta apaiz gehiago aurrean zituen batean, Joxemariaren zelibatoaren zintzotasunaren alde lepoa jarriko zukeela esan zuen, beste batzuenagatik aukeran ez jarri nahiago zuela garbi esan eta gero. Inork ez zion kontra egin; berak ere ez. Maitasuna eta bizi-poza edozein erlaziotan aurki eta landu daitezkeela dakiena ez daiteke sexua tarteko den harreman orotan mamu bila ibili. Boterearen izenean akaso bai, beldurraren edo ez dakit zeren izenean ere bai akaso, baina Berri Onaren izenean ez.

7. Elizaren maitale handia zen Aranalde jauna. Iazko OARSO aldizkarian atera zuen artikulua lekuko. Baina ez zen Instituzioaren morroi. Leialtasuna ebanjelioei zor zien aurrena, han agertzen den Jainkoaren eta gizakiaren ikuspegiari, eta hauen argira behin baino gehiagotan Elizari egiten zizkion kritikak mingarrien berari gertatzen zitzaizkion. Hori badakit nik ondo.

Ulegaitz zitzaion guztiz elizgizon eta eliz agintariak sarri agertu ohi duten bihotz falta, *zapatuari edo legeari edo erakundeari gizakiari* baino garrantzia gehiago emateko zuten joera ez-kristaua. Aspaldiko denboretara jo gabe, adibidez, ezin zuen ulertu ia gaur goiza arte azken gerratean hildakoetan alde bakarrekoak aitortu izana; elizaren zerbitzura urteak emandakoei, beste bide bat libreki hartzean, esker eta laguntza gehiago ez eskaintzea ere ez. Zenbait arau ez dakit nolako tradizioaren izenean inposatzea, gutxien-gutxien. Ulertu ezin. Onartu ezina baino sakonagoa da, gero, hori. Izan ere, gizalegearen eta bihotzaren taupadak indartzen ez zituen kristautasunaren ikuspegia arrotz gertatzen zitzaion guztiz.

8. Kontraesanak bereak ditu gizakiak. Akatsak bezala. Edozein erakunde eta taldetan zaudenean inolako kontraesan, ezin eta frustrazio gabe lana egin ahal izatea amets hutsa da. Hori edonork daki, eta erlijioen erakundeetan ari direnek, ez gutxien. Nik sarri esaten nion, eliz ofizialaren “azkarkeriaren” bat irakurtzean –eta azken urteetan ez dira, egia esan, faltatu- : “Ze,

Joxemai, baja eman edo zerbait egin beharko dugu, ba? Erantzuna beti berdina izaten zen: Horrenbestearino ote? Hori ere egin beharrean izango ote gara?“, eta buruari eragiten zion.

Hori egiteko, baina, ez zuen inolako tentaziorik izan, ez dut uste. Aldaretik bera gustura aritzen omen zen beti. Seguru zegoen ebanjelioetako hitzek –askorentzat ohiturazko hitz soilak bihurtu zaizkigun horiek- jende askori lagundu izan diela eta laguntzen diela bizitza hobeto ulertzen eta eramaten, hobeak izaten, bosteko eta laguntza egiazkoa albokoei luzatzen, behar beharrezkoa den esperantza sortzen eta mantentzen.

Uste osoa zuen halaxe izango zela aurrera ere; seguru zegoen kristauak (konfesio bat eta bestekoek) asmatuko zutela mundu sekularizatuan egoki kokatzen eta ikasiko zutela giza solidaritate unibertsalera zuzendutako beraien sinismenaren ekarria eskaintzen. Eliza ezberdinek ere horretara gero eta gehiago bideratzen saiatu beharko zutela. Esperantza hori galdua ez daiteke kristau izan, eta gure laguna esperantza eta nahi hori galdu gabe joan zen hemendik.

9. Nik, bukatu aurretik, gauza bat aitortu behar dut eta harro aitortzen dut: bere adiskidetasunarekin, urte luze baina motzegietan, pozbide bikaina eskaini zidan Joxemarik asko lagundu zidala niri kristau, fedearrekiko eta egungo munduarekiko jarrera egokiagoak barneratzen. Besteak-beste, inori ez sufriaraztea eta eskerrak ematen jakitea gizalege eta kristau lege oinarrikoak direla.

Heriotzaren eguna suertatu zitzaion bezperarako, bera gabe egin behar izan genuen *esker/agur* afarira gonbidatu gintuen sentitarteko eta lagun zenbait. Hurrengo egunean gorpu ikusi nuenean hemen aitatu ditudan pentsamendu hauexek bururatu zitzaizkidan golpera, eta eskerrak eman nizkion beste gauza askoren artean, bioi hainbeste interesatzen zitzaizkigun gai

hauetaz –eta beste askotaz- hainbeste elkarrizketa gozo izateko aukera eman zidalako. Haien falta handia sentitzen dut geroztik. Milesker, Joxemai, eta egun handirarte.

